

ERABILERA

Deskribapena: Herri bateko irudiak azaltzen dira, kale bat, eliza eta eskailera. Kike Amonarriz plaza batean eserita dagoen hirukote gazte batengana hurreratzen da. Gazteen izen-abizenak: Xabier Jauntsarats, Ainara Juaristi eta Leire Peñalba.

Kike: “Kaixo hirukote, esango al didazue zuek euskara non ikasi duzuen?”

Xabier Jauntsarats: “Ba txikitatik etxean hitz egiten eta gurasoekin eta gero ikastolan gutxika-gutxika geroz eta gehixo.”

Kike: “Eta zuek?”

Ainara Juaristi: “Nik be etxian, gurasoekin, bixek dakixe euskaraz eta kalean, klasean...”

Leire Peñalba: “Nik gehienbat ikastolan, ze gurasoek ez dakite euskaraz eta ba bestela aitaren familiarekin be bai.”

Kike: “Eta zuek zein neurritan egiten duzue euskaraz beste lagunekin?”

Ainara Juaristi: “Orain erdararaz gehienbat, baina segun ze lagunekin ba euskaraz, beste batzuekin erdararaz...”

Leire Peñalba: “Ohitura gehienbat.”

Kike: “Eta ohituraz aparte, ze jenderi euskaraz eta ze jenderi erdaraz?”

Ainara Juaristi: “Ba adibidez, igual, jendeak badauka bere gurasoak ez dakitenak euskaraz, orduan berak txikitatik egin daue erdaraz, eta berarekin badaukazu... ez dakit, irtetzen jatzu erdaraz berba egiteaz.”

Leire Peñalba: “Nahiz eta berak euskaraz jakin, erdaraz egiten diozu.”

Xabier Jauntsarats: “Hori da, azkenian batzuen ama hizkuntza ez da euskara eta gehiago kostatzen du beraiekin hitz egitea.”

Kike: “Eta sare sozialetan?”

Ainara Juaristi: “Bixetan, berdin.”

Leire Peñalba: “Bixetan.”

Xabier Jauntsarats: “Bai, berdin.”

Kike: “Baina zer da, batzuekin euskaraz eta besteekin erdaraz edo dena nahastuta?”

Ainara Juaristi: “Nahastuta.”

Leire Peñalba: “Nahastuta baina... bai, gehienbat nahastuta.”

Kike: “Alegia, “euskañol” moduko bat?”

Ainara Juaristi: “Hori, bai.”

Xabier Jauntsarats: “Batzutan bai.”

Ainara Juaristi: “Beno, euskaraz hasten bazara euskaraz jarraitzen dozu, baina gero azkenean erdarara pasatzen dozu.”

Leire Peñalba: “Eztabaidetan eta gehixenbat erdaraz egiten deu.”

Ainara Juaristi: “Hori da, hobeto espresatzen garelako nik uste dut.”

Leire Peñalba: “Ikastolako asignaturetan, dena euskaraz ematen dou eta euskaraz irteten jaku, klaseko jendearekin eta.”

Xabier Jauntsarats: “Hori da, bai.”

Kike: “Eta gero, telebista, irratia, musika...”

Xabier Jauntsarats: “Nik euskaraz telebista ez dut asko ikusten... bueno, ez dut ikusten. Baina irratia entzutekotan, Gaztea entzuten dut batzuetan.”

Leire Peñalba: “Bai, Gaztean abestiak jartzen dute eta musika entzutea gustatzen jat.”

Ainara Juaristi: “Telebista... es que azkenian gazte guztixok ikusten dugu berdina, orduan, euskaraz ez dou asko ikusten. Danok ikusten dugu gazteendako programa horrek ----eta danon artean komentatzeko...”

Leire Peñalba: “Horiek ikusi behar dira, azkenean komentatzea nahi baduzu.”

Kike: “Eta zuen ustez euskara garrantzitsua da?”

Ainara Juaristi: “Nik uste dut garrantzitsua dala euskaraz berba iten jakitea, Euskal Herrian bizitzea, polita da gainera, gustatzen bajatzu.”

Xabier Jauntsarats: “Gainera, gure ama hizkuntza izanda, ba hori betirako da, eta bueno ez da inoiz ahazten, hor jarraitzen du.”

Leire Peñalba: “Gure nortasunak adierazten dauz, ze hemengoak izanda eta txikitatik euskaraz jakinda ba nortasuna adierazten dauela uste dot.”

Ainara Juaristi: “Gainera, ez badeu guk erabiltzen orain, gero eta gutxiago erabiliko dabe, eta gero eta gutxiago, eta azkenean galdu egingo da, uste dot nik.”

Kike: “Eta zuek erabiltzen duzuen euskararen somatzen duzue hutsunerik?”

Leire Peñalba: “Bai, eztabaidetan eta ba beti erdarara pasatzen gara.”

Ainara Juaristi: “Ez dakit, erderaz askoz hobeto espresatzen gara, zeren hitzak eta falta jakuz euskeraz.”

Xabier Jauntsarats: “Ez dauka tokixa lagun batzuen artean eta baina saiatzen gara beti hitz egiten, baina bueno...”

Ainara Juaristi: “Igual zuk euskaraz in berba eta berak erderaz erantzutea zuri.”

Xabier Jauntsarats: “Ba ez da erraza...”

Kike: “Ba mila esker. Agur!”

Hiruak: “Ez horregatik, agur!”